



KULTURA

PAYS BASQUE

www.kultura-paysbasque.fr

GAZTE ANTZERKI IDAZKETEN INGURUKO FORMAKUNTZAK



Gazte antzerki idazketen inguruko formakuntzak (FR)

Ondoko Ikuskizunei lotuak:

Dans ma maison de papier, j'ai des poèmes sur le feu
Billy la nuit
À taille humaine
Elle pas princesse, lui pas héros

GAZTE ANTZERKI IDAZKETEN IBILBIDEARI BEGIRADA BEREZIA

Stéphane Jaubertie, antzerki sortzailea gazte antzerki idazketei eskaini sail berezi baten laguntzaile artistikoa izanen da bigarren denboraldirako segidan. Idazketa dinamiko ataleriak eskainiko ditu klaseetan zuzenki. Beste kultur ekintza batzuk (formakuntzak, irakurketak, belaunaldi arteko tailerrak) garatuak izanen dira ere, argitaratu antzerki garaikideko sortzaileen testuetan oinarritzen diren lau ikuskizunekin loturan. Ikuskizun hauek, Euskal Hirigune Elkargoko 20/21 kultur denboraldiaren baitan programatuak dira bestalde. Nazio mailan Scène d'enfance - Assitej France elkarteak dakartzan Gazte antzerki idazketak argian ezartzeko nahikeria batean sartzen da Stéphane Jaubertierekin eraman lankidetzara hau. Publikoki aurkeztua izanen da begirada berezi hau « ekainaren leko antzerki idazketa garaikideen » kariatara.

Gazteriarri zuzendu antzerkiko errepertorioaren aberastasunak ezagutu nahi dituzten irakasleei formakuntza ziklo bat proposatzen diegu kari horretara. Lehen formakuntzaren garaian, « Gazte antzerki idazketak » maleta banatua izanen da. Maleta horretan bilduak dira unibertso, gai, erritmo eta mintzaira desberdin hunkitzen dituzten 13 obra.

Gazte antzerki idazketei buruzko ibilbidea segitu gogo duen irakaslea hitzartzen da bi formakuntza aldietarako izena ematen, osagarriak eta bereizezinak baitira hauek (beherago zehazkiago aurkeztuak diren 1 eta 2 Formakuntzak).

Kasu: formakuntza hauetarako izena eman duten irakasle guziek haien ikasgelak « Dans ma maison de papiers, j'ai des poèmes sur le feu » ikuskizunera ekarri beharko dituzte. Ikuskizun honen testuak lehenagotik aztertuko dituzte irakasleek ikasgelekin ikusi aitzin.

1. FORMAKUNTZA:

2020KO ABENDUAREN 9AN, ASTEAZKENAREKIN (FR)

Hizlaria: Stéphane Jaubertie (artista asoziatu, sortzaile eta irakaslea)

Helbidea:

Larreko kulturgunea,
Xan Ithourria Plaza,

Senpere

Tenorea: 9h > 12h

EDO

Helbidea:

Espace Chemins-Bideak, 1,
Gibraltar bidea,

Donapaleu

Tenorea: 14h > 17h

Formakuntzaren helburuak:

Maleta pedagogikoko bi obraren azterketa irakasleek ekai artistikoa molde egokian erabiltzeko tresna konkretuak lor ditzaten: pieza bat, edo zenbait, osoki irakurri edo ikasleei irakurrarazi, edo justu antzerki zati bat ikasgelari ezagutarazi.

2. FORMAKUNTZA:

2021EKO MARTXOAREN 3IAN, ASTEAZKENAREKIN (FR)

Hizlaria: Stéphane Jaubertie (artiste associé, auteur et enseignant)

Helbidea:

Espace Chemins-Bideak,
1, Gibraltar bidea,

Donapaleu

Tenorea: 9h > 12h

EDO

Helbidea:

Larreko kulturgunea,
Xan Ithourria Plaza,

Senpere

Heure : 14h > 17h

Formakuntzaren helburuak:

Hari esker ulertu gazte publikoari zuzendu antzerki lan baten idazketa porzesua eta horretaz trukatu.